

HABE-REN ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, 2023KO URTARRILAREN 16KOA, AKATSAK ZUZENDUZ 2022KO ABENDUAREN 19KO ESLEIPEN EBAZPENEAN

(Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen eskariak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa esleitu zion HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpenean **LEIZAU** euskaltegiaren alde erabakitako kopuruak doitzen dituen).

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- HABEren zuzendariak esleipen-ebazpena eman zuen 2022ko abenduaren 19an, **LEIZAU** euskaltegiaren titularrak eginiko eskaera onartu eta 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako dirulaguntza kopuruak, 2022ko abuztuaren 31ko ebazpenaren arabera, ezartzen zituena.

Bigarrena.- Esleipen horretan honako akats hau antzeman da ebatzitako lehenengo puntuan: *Eranskinean zerrendatzen diren euskaltegi pribatu homologatu eta euskararen autoikaskuntza zentroei, **berezko ekimenezko jarduerako** euskara-ikastaroengatik jarraian zehazten diren kopuruak onartzea 2022tik 2025era bitarteko ikasturteetarako, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik: 2022/2023 ikasturterako **27.890.986,94** euro, 2023/2024 ikasturterako **29.847.843,21** euro, eta 2024/2025 ikasturterako **31.799.332,75** euro.*

Hirugarrena.- Esleipen horretan honako akats hau antzeman da **ERANSKINA: EUSKALTEGI PRIBATU ETA EUSKARAREN AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUEN DIRULAGUNTZAK 2022TIK 2025ERA BITARTEKO IKASTURTEETARAKO** taulan, **LEIZAU** (Euskal Herriko Ikastolak Europar Koop. Elk. - IFK: F95583233) euskaltegiari esleitutako kopuruetan:

2022 - 2023	2023 - 2024	2024 - 2025
LAGUNTZA	LAGUNTZA	LAGUNTZA
440.840,38 €	472.275,00 €	503.709,62 €

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.- 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako dirulaguntzen esleipen-ebazpen hau emateko eskumena HABEren zuzendariari dagokio, 29/1983 Legearen 10.1.h artikulua arabera.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Bigarrena.- 39/2015 Legearen 109.2 artikuluari jarraikiz, akatsak ofizioz zuzendu ditzake Administrazioak edozein unetan.

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Zuzentzea 2022ko abenduaren 19ko HABEren zuzendari nagusiaren esleipen-ebazpena, **LEIZAU**R euskaltegiaren titularrak eginiko eskaera onartu eta 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako dirulaguntza kopuruak, 2022ko abuztuaren 31ko ebazpenaren arabera, ezartzen zituena.

Bigarrena.- Ebatzitako lehenengo puntua honela geratuko da: Eranskinean zerrendatzen diren euskaltegi pribatu homologatu eta euskararen autoikaskuntza zentroei, **berezko ekimenezko jarduerako** euskara-ikastaroengatik jarraian zehazten diren kopuruak onartzea 2022tik 2025era bitarteko ikasturteetarako, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik: 2022/2023 ikasturterako **27.962.255,58** euro, 2023/2024 ikasturterako **29.887.677,23** euro, eta 2024/2025 ikasturterako **31.807.732,15** euro.

Hirugarrena.- Esleitzea **LEIZAU**R euskaltegiari 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako euskara-ikastaroengatik honako dirulaguntza kopuruak:

2022 - 2023	2023 - 2024	2024 - 2025
LAGUNTZA	LAGUNTZA	LAGUNTZA
512.109,02 €	512.109,02 €	512.109,02 €

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, adieraziz ebazpen honen aurka Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari gora jotzeko errekurtsoa jar dakiokela, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 16an

Izpea: Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia